

Erantzun ezin hobe: Bizkaiko Heziketa Bereziko langileen %81ak bat egin du lanuztearekin



Bizkaiko Hezkuntza Bereziko langileentzat gaurko deitutako lanuzteak arrakasta handia izan du, sektoreko langileen %81ak hartu baitu parte deialdian.

Kontzentrazioa ere arrakastatsua izan da, 13:00etatik aurrera langile asko eta asko Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren aurrean bildu gara.

Grebak izan duen atxikimendu zabal eta handiak argi asko adierazten du langileak bat datozela egin diren eskaerekin. Batez ere kontutan hartzen badugu ikastetxe gehienetan sektore honetako langile bakarrak lan egiten duela.

Hezkuntza Sailak bere eskuetan du, gatazka honen irtenbiderako, beharrezkoak diren urratsak ematea negoziazio mahaia edukiz betetzen, eta hau honela ez den bitartean mobilizazioekin jarraitzea behartzen gaitu.

Lehenengo mobilizazioak oso ondo atera dira baina ziur gaude ez dela nahikoa izango, horrexegatik gogoratu nahi dizkizuegu aurretik ditugun lanuzte eta kontzentrazioak:

ARABA Maiatzak 5ean lau orduko lanuztea eta kontzentrazioa arratsaldeko 16:00an.

BIZKAIA Maiatzak 6ean lau orduko lanuztea eta kontzentrazioa arratsaldeko 16:00an.

GIPUZKOA Apirilak 24an bi orduko lanuztea eta kontzentrazioa goizeko 13:00etan.

Maiatzak 8ean lau orduko lanuztea eta kontzentrazioa arratsaldeko 16:00an.

2008ko apirilaren 22an

